

Kuttuna Haur Eskola inauguratu dute Zizurkilen

ADUNA-ZIZURKIL ▶ Bi
herrietako haurrentzat
dago zabalik eskaintza

ZERBITZUA ▶ Martxan da,
eta 14 haur joaten dira;
25entzako lekua du ▶ 4



Kuttuna Haur Eskolako umetxoak, atzo, jolasean. J. GOIKOETXEA



Tolosako eskulturak, doluz, emakumeenganako indarkeria salatzen

TOLOSALDEA ETA LEITZALDEA ▶ Emakumeenganako
Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunean ekitaldi ugari egin
zizuten atzo Tolosan. Aldarrikapenek, hala ere, ez dute etenik
izango, eta datozen egunotarako ere prestatu dituzte ekintzak;
besteak beste, hitzaldiak eta topaketak. N. LATABURU ▶ 2

LEITZA ▶

Herria euskaraz janzteko asmoz

Atzo, konpromisoak sinatu zituzten
Erleta eskolan, festa giroan ▶ 7



Bai Euskarari ziurtagiria dutenek abian jarri dute ekimena. J. ASTIBIA



jantzi hitza ren jertse berriak

HITZAren egoitzetan salgai

EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA ▶

Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako hotsak

Egun honen harira hainbat ekitaldi antolatu zituzten, eta Tolosako eskulturak estali zituzten; datozen egunotan ere izango da bestelako aldarrikapenik

NOELIA LATABURU

Urteko egun guztietan aldarrikatzen dena atzo are eta ozenago entzun zen Tolosako kaleetan. Ahotsek eta protestek hartu zuten nagusitasuna, mezu bakar bat osatu zutela: emakumeek jasaten duten indarkeria salatzea, hain zuzen. Nazioartean egiten den egunaren harira hainbat eta hainbat ekitaldi antolatu zituzten eskualdean.

Besteak beste, olerkiez, bertsoez eta musikaz hornituriko kultur ekitaldia izan zen Tolosan: Txaro Arteaga Emakunde-ko zuzendari ohiak hitzalditxo bat eskaini zuen, Julia Otxoa idazleak olerkiak irakurri zituen, Amaia Agirre bertsolariak bertsoak kantatu zituen, eta David Azurza, Miren Gari-



Tolosako hainbat eskultura estali zituzten, emakumeenganako indarkeria salatzeko. NOELIA LATABURU

kano eta Iñigo Alberdi musikariek musika emanaldia eskaini zuten Errotako hitzaldi aretoan (Haur eta gazteen liburategian). Tolosaldeko Bilgune Feministak, bestalde, eskualde mailako kontzentrazioa egin zuen Tolosako Triangulo plazan, *Emakumeen kontrako indarkeriarik ez! Erasotzaileei ekintza zuzena* lelopean.

Ezusteak ere iragarri zituzten Tolosako Udaletik, eta bete ere bete zuten esandakoa. *Tolosak, artearen eta kulturen bidez, bat egiten du gizonezkoen indarkeriak hildako emakumeenganako doluarekin*. Mezu hau zabaltzen zuten kartelak ezarri zituzten herrian barreiaturik dauden eskulturen alboan, eta eskulturak, berriaz, tela beltzez estali egin zituzten, doluaren adierazle.

Datozen egunotan ere izango dira aldarrikapenak Tolosan: abenduaren 1ean Ibon Agirrezabalagaren hitzaldia, Ero-Etxen, 19:00etan. 13an, berriaz, Amparo Tome ariko da. 14an, esperientzia topaketak izango dira Tome beraren eskutik. Eta 16an Reina Ruiz Gasteko Udaleko Genero Berdintasunerako teknikaria izango da gurean saioa eskaintzeko.

GIZARTEA ▶

Egokilan, gutxietsitakoak lan munduratzeko egitasmo berria abiarazi dute Tolosaldean

Bi programa landuko dituzte bertan, Txekinbide eta Merkataritzalan, hain zuzen ere

N. LATABURU

Azken hamarkadako ikerketek garapen baikorra erakutsi dute Gipuzkoako langabezi tasetan, bai eta Tolosaldean ere. Hala ere, langabeziak bere alor pertsonalean, sozialean zein ekonomikoan gizarte sozial eta ekonomiko oso bat ez izatearen arrazoi nagusia izaten jarraitzen du.

Honen aurrean, bi ezaugarri azpimarratu daitezke. Batetik, Europako Batasunarekin alderatuz gero, emakumeon aktibitate tasa txikia dela. Eta, beste-

tik, zailtasun bereziak dituen kolektibo bat dagoela, epe luze-ko langabezia eror daitekeena. Gipuzkoako Foru Aldundiko Giza Eskubide, Lan eta Gizarteratze sailak hainbat ekimen abiarazi ditu, aldaketa sozial hauek ekarri dituzten arazoei aurre egiteko helburu argiarekin. Hau guztia lan politika aktibo baten bidez garatu dute, emakumei zuzendutako, baita etorkinei eta baztertzeko arriskuan diren beste kolektibo batzuei ere.

Batetik, Txekinbide programa dago. Programa honen bi-

tartez, teknologia berrien eta informazio eta komunikazioaren mundurako lehen hastapenak emateko aukera dago, heziketa prozesu baten bitartez eta enpresetan praktikak burutz. Ekimen honen helburua gutxietsitako taldeen eta baztertuen lan munduratzeko sustatzea da, beti ere aukera berdintasuna ardatz izaki. Honek informazioa, orientazioa, hezkuntza eta lan praktikak barnertzen ditu.

Bestetik, Merkataritzalan izeneko programa abiarazi dute. Azken honek ostalaritza-

ren eta komertzioen mundurako heziketa ematen du. Programa hau ere bazterte arriskuan dauden kolektiboetara zuzentzen da. Bere barne ere informazioa, orientazioa, hezkuntza eta lan praktikak hartzen ditu. Gainera, programa honek, behin amaituta, kontratazioetarako laguntza luzatuko die bertan parte hartu dutenei.

Ikastaro asko aukeran

Tolosaldean garatuko diren heziketa eskolak honakoak dira: Office-en teknikoak —hila-

ren 28tik martxoaren 16ra bitarte, 10:00etatik 13:15era. Berastegin—; kudeaketarako informatika zerbitzuen aplikazioak —hilaren 28tik martxoaren 2ra arte, 15:30etik 20:00etara. Berastegin—; sorospen zaintzak eta klinikakoak —hilaren 28tik otsailaren 22ra bitarte, 09:30etik 13:30era, Bidegoianen—; eta telemarketing-a eta telefono harreta —dagoeneko hasi da eta abenduaren 16a bitarte garatuko da, 09:30etik 13:30era, Abaltzisketan—.

Ekimen honetan parte hartu dute, elkarlanean, Tolosaldea Garatzen, Tolomendi eta Gipuzkoako Ganbera erakundeek. Informazio gehiago eskuratu nahi duenak edota izena eman nahi duenak Tolosaldea Garatzen eskualdeko garapen agentziara jo dezake, edo 943 65 45 01 telefono zenbakira deitu.

iragarki laburrak ▶

Aireportuak. Bezero arretarako lanpostuak betetzeko premia. Informa zaitetz 943 31 37 82 telefono zenbakian.

Haur eskola publikoak. Haur zaintzaileak, bereziak, adinekoak eta hezitzaileak behar dira. Lanaldia,

asteleheneetik ostiralera. Informazioa doan. 943 31 37 82.

Garbitzaileak. Lan finkoa: eraikin publikoak, ikastetxeak, ospitaleak. Asteleheneetik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara. Informa zaitetz 943 31 37 82.

Gidariak. Hurrengo deialdiak: Donostia, Eusko Jaurlaritza. Astean 35 ordu. Informazioa doan. 943 31 37 82.

Administrari laguntzaileak. Hurrengo deialdiak: Beasain, Bergara, Sorraluze, Mutriku, Zizurkil,

Mendaro eta Anoeta. Asteleheneetik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara. Informazioa doan 943 31 37 82 telefono zenbakian.

Harreragileak. Harreragile-telefonista. Udaletxetarako plaza libreak. Informa zaitetz

943 31 37 82 telefono zenbakian.

Sukaldari laguntzailea. Sukaldari laguntzailea, sukaldariak, zerbitzariak. Hurrengo deialdiak erakunde publikoetan. Informa zaitetz. 943 31 37 82.

GIZARTEA ▶

Txinparta elkartearen 75 urteak biltzen dituen liburua, kalean

‘Elkarbizitzarako eskola’ izenpean, Ander Letamendia aritu da idazle lanetan; iragan asteazkenean aurkeztu zuten



Iragan asteazkenean egin zuten aurkezpen ekitaldia. KLUK

NOELIA LATABURU

1930. urtean tolosar batzuk Txinparta elkarte sortu zuten. Orduetik hona hamaika istorio, hamaika gertakari, hamaika

oroitzapen... Elkartearen 75. urteurrena aitzaki, guztiak batzea erabaki zuten. Horrela, eta lan nekezaren ostean, *Elkarbizitzarako eskola* liburua jaio da. Bertan, 75 urte hauetako

une hunkigarrienak eta elkartearen historia kontatzen dituzte. Ander Letamendia aritu da idazle lanetan—Ez da tolosarrak idazten duen lehen liburua: *El dedo blanco del pelotari*, *El pelotari y sus manos*, *Neure eskuak zainduz*, *Migel Soroa*, *beti gizon eta kantxan jaun eta Polvo y paja*...—. Letamendiak, gainera, Txinparta elkarte ekitaldien arduruan hogeita hamar urte luzez jardun du. Hori dela eta, elkarteok «bera baino aukera aproposagorik» ez zela pentsatu zuten, liburu hau idazterakoan.

Pasa den asteazkenean burutu zuten, hain zuzen, liburua aurkezpen ekitaldia, Tolosako Udaleko areto nagusian. Bertan izan ziren, besteak beste, Txinparta elkarte hainbat

HAINBAT DATU ▶

Aste honetan aurkeztu dute liburua. Hona hemen hainbat datu:

Izenburua. *Elkarbizitzarako eskola*.

Egilea. Ander Letamendia Loinaz.

Hizkuntza. Euskaraz eta gaztelania.

Aurkibidea. Jose Luis Garmendia, Txinpartako presidentearen agurra; Jokin Bildarratzen aurkezpena; Juan Garmendiaren hitzaurrea; oharrak; elkartearen izaera; elkartearen jaiotza; lehen hamarkada; erloju zaharra; errege festa; margo erakusketak; herriko festak; hitzaldiak, kontzertuak; Txinparta eta Gure Txokoa, adinkide baino gehiago;



Liburuaren azala. HITZA

gibelsolasa, LXXV. urteurrenaren albuma; eranskinak (lau diru guztira). **Laguntzaileak.** Tolosako Udala, Euskadiko Kutxa eta MG fundazioa.

kide, Tolosako alkate Jokin Bildarratz eta Xabier Euskitze bertsolaria. Jende asko bildu zen hauekin batera Txinpartaren 75 urteak ospatzera. Ez da aurten ospakizunetan murgildurik dagoen elkarte bakarra; izan ere, Gure Txokoa ere urte berean sortu zen. Liburuaren atal bat, gainera, bi elkarten arteko adiskidetzari eskaini dio Letamendiak. Honekin ba-

tera, bestelako gaiak ere jorrazten ditu, guztiak ere garaian garaiko argazkiekin hornituak: Txinpartaren ibilbidea, herriari eginiko bere ekarpenak, partaideak... Guztiak dira protagonista 341 orrialdeetan zehar. Xabier Euskitzek ere azken bertsoa eskaintzen du liburuan, elkartearen ikur bilakatu den «erloju aldrebeari» aipu egiten diona.

ZINE-KLUBA ▶

Gazte zine-kluba sortzeko egitasmoa abian, «gazte zinezale amorratuentzat»

Gazteria sailarekin eta Gazte Topagunearekin elkarlanean ari dira

N. LATABURU

Tolosako zine-klubetik gazte zine-kluba sortu nahi dute. Udal Gazteria sailako teknikariari eta Gazte Topaguneko arduradunei egitasmoa aurkeztu zieten, eta aurrerantzean elkarlanean ariko dira hau aurrera aterako. Helburua herriko gaztetxo zinezale amorratuekin taldetxo osatzea da, eta hauen laguntzaz Tolosako gazte zine-klubaren lehenengo programazioa antolatzea.

Jarraituko dituzten estrategiak honakoak izango dira, asko gutxi: ikastetxe eta elkarteetako arduradunei, taldeko helburuak hobeto ezagutaraztearen, duten dokumentazioa bidaltzea —Udalari eginiko proposamena, buletinak...—; beren ardurapean dauden zinezaleekin kontaktatu ahal izateko laguntza eskatzea; bilera

baten bidez 12 eta 14 urte bitarteko gazteei egitasmoa zabaltzea; aurrekontu bat egitea eta finantzaketa lortzea, Euskara, Gazteria eta Kultur sailen artean, esaterako; sarrera merkeak ziurtatu ahal izateko, bazkide txartelen sistema bat adostea; pelikula sorta bat aukeratzea eta hauei buruzko informazioa (sinopsiak, fitxa teknikoak...) osatutako taldean banatzea, emanaldiaren eguna erabakitzeke aukera emateko; azken bilera bat egitea eta eskainitako pelikulen artetik gus-tukoan dituztenak bozketa bidez aukeratzea; boto gehien jaso dituzten pelikulekin programazioa osatzea eta egitarau-orri bat argitaratzea; eta, azkenik, bideo klubetako nagusiekin ere harremanetan jarri ahal izatea lankidetzat plan bat adosteko, izan ere, zaletasuna edozein euskarritan sus-

tatu nahi dute zine-klub taldekoek.

Gazte zine-klub berri honekin zine-klub nagusiaren atal bat osatu nahi dute eta, ondorioz, elkarren arteko harremana zuzena eta tinkoa izatea dute helburu. Orain, Leidor antzokiko berritze lanak direla eta, zine-klub saioak garatzen diren gela ez dago libre. Baina datorren urteko lehen hilabetearako libre izatea espero dute eta ordurako, beraz, dena abiarazteko moduan izatea nahi dute.

Honekin batera, asteburuetan, gazteek libre uzten dituzten saio orduetan, emanaldi gehiago antolatu ahal izango dituzte.

Tolosako zine-klub taldekoek guztion proposamenak aintzat hartuko dituzte, beti ere ekimena aurrera atera ahal izateko.

KULTURA ▶

Titirijai 05eko lehen bi saioak gaurkoan

Kultur Etxean eta Beotibar pilotalekuan izango dira, 17:30ean eta 20:00etan

N. LATABURU

Gaur abiatuko da Nazioarteko Txontxongiloen Jaialdiko 23. edizioa. Abenduaren 4ra arte luzatuko den jaialdia Venezuélako Titeres La pareja taldeak irekiko du. *Panchito Mandefua* lana aurkeztuko dute hauek Kultur Etxean, 17:30etik aurrera. 11:00etan, berriz, Ibarrako Kultur Etxean aurkeztuko dute lan berbera.

Eta ondoren, 20:00etan, Beotibar pilotalekuan, aurtengo ikurra izango diren txinata-

rrak ariko dira. Guandong puppet theatre taldea izango da, hain zuzen ere, *Lingnango hagatxoan magia* antzezlanarekin.

Jaialdiko zirkuitoan ere izango da ikuskizunik. Donostian Bulgariako Teatro Ariel-ekoek *Jostuntxo ausarta* antzez-tzuko dute Intxaurren Kultur Etxean, 18:00etan. Eta 11:00etan, Pasaiaiko San Pedro Udal aretoan, Andaluziako (Espainia) Teatro las maravillas taldeak *Kaio baten historia* aurkeztuko du.

Betinai

jatetxea

Garaian
garaiko janariak
Arraikiatan berezia

© 943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Errementeri kalea, 16 • 20400 TOLOSA

HEZKUNTZA ▶

Zizurkil eta Adunako haurrak hartuko dituen Kuttuna Haur Eskola inauguratu dute

07:30etik 18:30era bitartean zainduko dituzte haurrak; ekitaldian, Zizurkilgo alkatea, Adunako zinegotzi bat eta Jaurlaritzako ordezkariak izan ziren



Otaegi, Lazkano eta Artola, haurrekin jolasean, atzoko inaugurazioaren une batean. J. GOIKOETXEA

JULEN GOIKOETXEA

Kuttuna Haur Eskolaren inaugurazio ofiziala egin zuten atzo eguerdian Zizurkil. Nahiz eta aurrez ere martxan egon, atzokoan erakundeetako ordezkariak etorri ziren, eta Haur Eskolaren funtzionamendua ikusteaz gain, bertan aurkitzen ziren haurrekin jolasean ere aritu ziren tentazioari eutsi ezinik. Haur Eskola Zizurkilan egon arren, Adunako haurrentzat ere zabalik dago eskaintza, bi herrien arteko hitzarmen bat dela eta. Ekitaldian, Zizurkilgo alkate Marian Lazkano eta Adunako zinegotzi Antton

Artola izan ziren bi herrien ordezkari gisa. Hezkuntza Sailaren ordezkari bezala, berriz, Xabier Otaegi etorri zen.

Txikiaren eguneroko lasatasuna hautsi zuen atzoko inaugurazioak. Ekitaldia izan zen orduan, bertan aurkitzen ziren haurrak bazkalosteko lokuluxka egiteko prest zeuden, baina ez zuten inongo arazorik izan kamera aurrean jartzera-ko orduan.

Kuttuna Haur Eskola aurten jarri da martxan 25 haurrentzako tokiarekin. Hasiere batean, 9 ume hasi ziren Haur Eskolara joaten, baina hilabete gutxitan kopuru horrek asko egin

du gora eta gaur egun 14 haur joaten dira egunero. Horietatik 13 zizurkildarrak dira, eta bat da Adunakoa. Izan ere, bi herri hauetako Udalek hitzarmen bat dute sinatua Haur Eskolaren inguruan, eta itun horren arabera Adunako umeek ere zabalik dute Kuttunara joateko aukera. Izan ere, ordegegi zabalak eskaintzen du: 07:30etik 18:30era egoten dira haurrak bertan, hezitzaileen zaintzapean.

Prezioei dagokienean, bi aukera eskaintzen dituzte. Batek, haurra 5 ordu baino gutxiagorako uzteko aukera dago eta, bestetik, 5 eta 8 ordu bitartean

uzteko. Lehen kasuan, 135 euro ordaindu behar dira hileko eta bigarrenetan 180 euro. Lehen esan bezala, gaur egun 14 haur daude eta, guztira, 25entzako tokia dago. Beraz, 11 plaza geratzen dira oraindik libre, eta horietakoren bat hartu nahi izanez gero urtarrilean izango da matrikulatzeko aukera martxoan hasteko. Horretarako, Kuttuna Haur Eskolan eman beharko da izena 943 69 41 49 telefono zenbakira deituz.

Haur Eskola lau gelaz osaturik dago. 0 urteko haurrek gela bat dute haientzako bakarrik, eta beste bat urtebete dutenek. Hirugarren gela batean sei seaska daude haurrek atseden hartu dezaten eta, azkenik, laugarren gela bat dago, hezitzaileek euren egitekoak egin ditzaten. Horretaz guztiaz gain, kanpoko jolasleku bat ere badago; hori bai, gaur bezalako eguraldiarekin barruan hobeto egongo dira txikiak.

Ekitaldian, Marian Lazkano Zizurkilgo alkateak hartu zuen hitza lehenik. Berak esan zuenez, «lehen Villabonara joan behar izaten zuten Haur Eskolara, eta orain herrian bertan zerbitzu horretaz goza dezake- te».

Kokalekuari buruz ere arituzen hizketan Lazkano eta, esan

zuen, toki egokian dago kokatuta. Izan ere, Pedro Mari Otaño ikastetxearen gimnasleku zenean dago kokatuta. «Guztia goitik behera berritu da, eta haurrek behar dituzten zerbitzuak eskaini ahal izateko egokitu dugu eraikina». Haur Eskola herrian izateak beste erosotasuna dakarrela ere adierazi zuten ekitaldian. Datuen arabera, Haur Eskola Villabonan zegoenean baino haur gehiago joaten da Kuttunara Zizurkildik.

Bestetik, Adunako udal zinegotzi Antton Artolak ere egin zituen adierazpen batzuk. Bere hitzetan Zizurkilgo Udalarekin eginiko hitzarmenak onura ekarriko die Adunako haurrei. «Guk ezin genuen herrian Haur Eskola jarri; izan ere, zegoen haur kopurua ikusita ez zen bideragarria. Baina, orain, aukera ona iruditu zaigu Zizurkilekin itun hau sinatzea, eta gure ardura eta gastuak onartuz, gure heriko haurrei zerbitzu hau eskaini ahal izatea».

Erakundeen elkarlana

Inaugurazio ekitaldian, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailako ordezkari gisa hitz egin zuen Xabier Otaegi. Otaegiren hitzetan, «Haur Eskolaren kudeaketa Udalen eta Jaurlaritzaren arteko elkarlanak bideratzen du. Batek, Zizurkilgo eta Adunako udalak instalazioaren mantenimenduan eta garbiketaz arduratzen dira eta, bestetik, Eusko Jaurlaritzak hezitzaileak jartzen ditu eta hasierako ekipamendua edo hornidura ere Jaurlaritzaren betebeharra da.

Gauzak horrela, Zizurkilgo eta Adunako gurasoek badute beraien haurrek egunean zehar lasia utzi ahal izateko aukera berri bat Kuttuna Haur Eskolan.

VILLABONA ▶ ZINEMA

'Obaba' filma ikusteko aukera izango da asteburu osoan Gurea zineman

Gaur, bihar eta etzi 19:30ean eta 22:30ean izango dira saioak

ERREDAKZIOA

Gaur gauean helduko da eskualdeko zinemetara azkenaldian hainbeste zeresan eman duen *Obaba* filma. Bernardo Atxaga idazle asteasuarraren *Obabakoak* lanean oinarriturik dagoen filma Donostiako Nazioarteko Zinemaldiko sail

ofizialean lehiatu zen; hain zuzen ere, edizioa ireki zuen lana izan zen. Jende ugari ikusi du filma hilabete hauetan, eta orokorrean kritika ona jaso duela esan behar da.

Montxo Armendarizek zuzendutako filma lau aldiz ikusteko aukera izango da gaur eta bihar Gurea zineman. Gaur,

19:30ean eskainiko dute euskaraz, eta 22:30ean gazteleraz. Bihar, aldiz, 19:30ean gazteleraz ikusi ahal izango da, eta 22:30ean euskaraz. Baina astelehenean ere izango da filma ikusteko aukera: 19:30ean euskaraz eskainiko dute, eta 22:30ean gazteleraz.

Aukera bikaina izango da,



Filmaren kartela. HITZA

beraz, asteburuan etxeko idazle baten lana pantaila handira moldatuta ikusteko. Estreinaldiaren garaian sarrerak lortu ezinik ibili zen jendeak egun hauetan izango du filma ikusteko aukera etxetik oso urrun joan gabe.

Beraz, eguraldi txarra delata eta etxean geratu ordez, bada astebururako plan bat. Izan ere, horrelako emanaldi eskaintza zabala izanik, zaila da muzin egitea pelikula hau ikusteko aukerari. Gonbita egina dago: hurbiltzea eta filmaz gozatzea besterik ez da geratzen, hortaz.

IKAZTEGIETA ▶ KULTURA

IMANOL GARCIA

Aurtengo Kultur Astea bere azkenera iritsiko da gaur. 18:00-etan hasita, Irrintzi taldearekin erromeria izango da. Horren aurretik, baina, atzo ipuin kontaketa saioa izan zen liburutegian. Gorringo taldeak eskainita, haurrek eta baita zenbait helduek ere, *Antonino Apreta* izeneko ipuina entzuteko eta ikusteko aukera izan zuten. Ikusle goak barre egiteko uneak izan zituen, eta baita hausnarketarako ere. Egoitz Lasa kontaktetan eta Iñaki Agirre zabal txotxongiloak mugituz, Antonino Apreta zapatagilearen istorioa kontatu zuten, Bernardo Atxaga asteasuarraren izen bereko liburuan oinarrituta.

Esan bezala, gaur amaituko da Kultur Astea, eta horretarako erromeria antolatuta dute. Berrikuntza bat izango da herrian Kultur Astea horrelako saio batekin bukatzea. Erromeria haur, gazte eta helduei zuzenduta dago. Bestalde, aste honetako ekitaldiei dagokionez, jendearen erantzun ona jaso dute orokorrean. Igandeko ekitaldietan, krosa eta txotxongilo emanaldia, lagun asko izan ziren. Astelehenean eta asteartean ere bertaratu zen, baina asteazkenean eta ostegunean ez zen hainbeste jende animatu.

Kultur Astea amaitzeko, erromeria

Gorringo taldeak 'Antonino Apreta' ipuin kontaketa eskaini zuen atzo



Liburutegian atzo egindako ipuin kontaketa une bat. I. GARCIA

VILLABONA ▶ POLITIKA

Miguel Zalakaini omenaldia egingo diote bihar eguerdian Belabietan

Orain 15 urte zendu zen Martutenen preso politiko billabonatarra

ERREDAKZIOA

1990. urteko azaroaren 30ean zendu zen Miguel Zalakaini billabonatar preso politikoa bihotzekoak jota Martuteneko espetxean. «Zuen gaixotasunari jaramonik egin ez eta mediku asistentzia oker baten ondorioz hilotz aurkitu zuten bere ziegan», dio ohar batean Villabonako Amnistiaren Aldeko Mugimendua. «Espetxeko medikuak absolutuak izan ziren, eta egun euren funtzioak betetzen jarraitzen dute espetxean».

Data hauek gerturatzeko moduan Villabonako Amnistiaren Aldeko Mugimendua deialdi zabala egiten die herritarrei, «urteak beranduago ere heriotz hura sala dezaten, are gehiago hamabost urte beranduago ere euskal preso-

ak espetxeetan hiltzen ari direnean, mediku asistentzia desgogoki baten ondorioz. Azken kasua, Jose Anjel Altzuguren *Kotto*-rena dugu».

Euskal preso politikoen heriotzen salaketa egin eta Miguel Zalakaini omenaldia egi-

teko elkartuko dira bihar Belabietan, 12:00etan. Ekitaldira joteko bi modu antolatuta dituzte. Alde batetik, oinez joan nahi duenak 09:00etan du hitzordua, kiroldegian. Autoz joan nahi dutenak, berriz, 11:30ean elkartuko dira, leku berean.

urteurrenak ▶

Esteban Martiarena Navarro
(I. urteurrena)

Zure oroitzapena daukaagu hain garbi zu zerala guretzat gauean ilargi egun argiz eguzki lainotan oskarbi zure beharra dugu egiguzu argi.

Arraguako Salbatore parrokiaren igandean, hilaren 27an, goizeko 09:00etan ospatuko den mezetara gonbidatzen zaitugu. ETXEKOAK.
OIARTZUN, 2005eko azaroaren 26a

ANOETA ▶

EHNA egiteko aukera gaur eta bihar udaletxean

EHNA tramitatzeko aukera izango da Anoetako udaletxean gaur eta bihar. Interesatuak 11:00etatik 14:00etara izango dute aukera horretarako. Eraman beharrekoak: hiru argazki, errolda agiria eta hamabost euro. Anoetarrok Auzolanean herri plataformak EHNA egin eta erabiltzeko deialdia luzatu diete herritarrei.

AISIA ▶

Aralarko historia eta mitologia ezagutz

Aralar Natur Parkeak ibilaldi bat antolatuta du biharko. Interesa duen orok parte har dezake bertan. Urriaren geologia gaitzat hartuta egindako ibilaldiaren arrakasta ikusirik, orangoan mitologia eta historia izango dute aitzaki. Biharko ibilaldia Ataungo Ergoiena auzoko enparantzan izango du abiapuntua, 09:00etan. Bertatik, Atxurrene baserrira eta handik barrena Berrenoako gaitzada hartuz, Berrenoa eta Intsusburu aldera joko dute, Jon Aizpurua ataundar eta Atauniker taldeko kidearen gidaritzapean. Ibilibidean zehar inguru horretako historia eta mitologiaren murgiltzeko aukera izango dute beren azalpenen bitartez. Ibilbidea zailtasun ertainekoa izango da (600 metro inguruko desnibeak) eta lau ordu eta erdi inguruko iraupena izango du.

VILLABONA ▶

Mendi Astearen baitan, ibilaldia eta bazkaria

Aizkardi Mendi Elkarrekin antolatutako 22. Mendizale Astearen baitan, mendi ibilaldia eta bazkaria egingo dute bihar. Hain zuzen ere, Olederra kiroldegian ondoan elkartuko dira, 08:30ean, ibilaldiari ekiteko.

ALEGIA ▶ KIROLA

Gaztetxeko pilota txapelketa

Alegiako Gaztetxeak pilota txapelketa antolatuta du. Urtrarriletik aurrera hasiko dira partidak egiten, eta hauek asteburuetan jokatuko dira. Inskripzioa 10 eurokoa da bikoteko, eta izena emateko zerrendak ohiko tabernetan jarrita daude. Urtrarrilaren hasieran bilera batera deituko dituzte izena emandako bikoteak txapelketaren nondik norakoak agertzeko.

ANOETA ▶

Eskulanetako ikastaroa antolatu dute

Udalak eskulanetako ikastaroa antolatu du. Hainbat teknika erakutsiko dituzte. Urtrarrilaren 12tik ekainaren 8ra izango da ikastaroa, ostegunetan, 15:45etik 17:45era. Klaseak Hozpel kaleko udal lokalean emango dira. Prezioari dagokionez, partaideek materiala soilik ordaindu beharko dute. Izen-ematea, abenduaren 2a arte.

VILLABONA ▶

Behar-Zanakoek asteburuan joko garbiko partidak

Joko garbiko Euskal Herriko Txapelketaren baitan, Behar-Zanako seniorrek lehenengo mailan dute partida gaur, 19.00etan, Villabonan. Hendaiaren, Behar-Zana 1 eta Angeluko Hardoy 2 taldeek jokatuko dute.

II. Urteurrena
Xabier Urdangarin Agirre

2003ko azaroaren 21ean istripuz hil zen, 19 urterekin.
-Golan bego-

Gaur irrifartsu oroitzeko gara utzi gintuzun antzera nahiz ta ez zaren gure barruko ideietatik atera.
Zu gozatzeko urte batzutan izan genuen aukera; gerora ere egunik egun zutaz oroituko gera.

Gurasoak: Estanis eta Pepi; anaia Harkaitz; amonak, osaba-izebak, lehengusua eta gainerako ahaideak. Haren animaren alde otoi bat ez eskatzen dizuete, eta arren etor zaitzetzela gaur, larunbata, arratsaldeko 19:00etan Mikel Goiaingeruaren parroki elizan egingo den urteurren mezara. Aldez aurretik mila esker.

LAZKAO, 2005eko azaroaren 26a

IBARRA ▶

Mendi martxa antolatu du bihar Haitzetan Rajuk

Ibarrako Haitzetan Raju mendi taldeak biharko antolatu duten mendi martxan parte hartzeko gonbita luzatu die herritar guztiei. Amezketeta, Bedaio, Azkarate, Altzo eta Ibarrik barrena igaroko dira, hain zuzen. Martxa honetan parte hartu nahi dutenek Ibarriko Txumitxa tabernaren pareko saihesbidera gerturatu beharko dute bihar goizean, 08:30ean; ondoren, Tolosako Triangulo plazan 09:00etan irtengo den autobusa hartzeko asmoa baitute.

IBARRA ▶

Bide Eginezen II. batzarra gaur Subegi elkarte

Bide Eginez prozesuaren bigarren batzarra izango da gaur, Ibarriko Batasunak deituta. 10:00etatik 13:00etara izango da Subegi kultur elkarte. Bertan jorratuko diren gaiak ondorengoak izango dira: ildo politikoaren eztabaida eta batasuna aurrera.

ALTZO ▶

Ardo dastaketa ikastaroan izen-ematea

Ardo dastaketa ikastaroa antolatu du Altzoko Udalak. Zortzi asteko iraupena izango du, eta aste bakoitzean bi ordu eta erdiko saio bat egingo dute. Datorren urtarrilean hasiko da ikastaroa, eta izena emateko epea hilaren 30ean, datorren asteazkenean, amaituko da. Bertan izena eman nahi dutenek udaletxera jo beharko dute, han baitaude inskripzio orriak. Gainera, doan izango dela jakinarazi dute Udaletik. Ikastaro honen helburuetako bat ardo dastatzea era autonomo batean egitea dela azaldu dute, halaber.

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Space. Renault Space salgai. Motorra DCI 2.200. 2001ekoa. Interesatuak deitu 649 89 98 03 telefono zenbakira.
Avensis. Toyota Avensis monobolumena salgai.

IBARRA ▶ ARETO FUTBOLA

Basauriko Soloarte taldearen aurka neurtuko da Ibarra

Konfiantzaz eta irmotasunez aurkitzen da taldea gaurko partidaren aurrean; jokalaria guztiak daude jokatzen prest

ERREDAKZIOA

Basauriko Soloarte taldearen aurkako norgehiagoka izango du gaur Ibarra areto futbol taldeak, Basaurin, 16:15ean. Pasa den astean, Belabietan jokatu zuten partidaren, Cesar Rocaren mutilek eginiko erakustaldia eta gero ibarrik hala jarraitzea espero dutela azaldu du Jose Manuel Tobias prentsa arduradunak.

Pasa den urtean ikus genezakeen taldearekin alderatuz, aurtengoak Ibarrik betidanik izan duen konfiantza eta irmotasuna erakusten duela esan genezake. Aipatu Cesar Roca entrenatzaileak iragan asteburu

rian izan zituen jokalaria guztiak dituela gaurkoa jokatzen prest. Hori bai, ez da azken unerarte jakingo Fernando Ayerzak eta Xabier Blanchek jokatzen aukera izango duten hala ez.

Bizkaikoa, bestalde, denboraldiari gogor ekin dion taldea da; partida bat gutxiago jokatuta batu dituzten 20 puntuek eta bigarren postuak frogatzen dute hori.

Pasa den urtean Ibarrik Basaurin jokatu zuen partidaren 6-2ko emaitzarekin bueltatu zen etxera. Bueltakoan, Ibarrik arantza atera ahal izan zuen 4-2ko emaitzaz hartu baitzituen mendean Soloartekoak.

Ibarren aurreko astean gertatu bezala, Juan Pablo Zubelzu Txubel eseriko da aulkian Cesar Rocak zigortuta jarraitzen baitu; beraz, harmailetatik eman beharko ditu aginduak.

Jubenilak ere Bizkaian

Jubenilen taldeak ere Bizkaian jokatuko du gaur, Leioan, hain zuzen ere, 12:30ean, Gaztelutaren aurka; beraz, hauen entrenatzaile Txubel bi partidetan egon ahal izango da.

Bestalde, lider jarraitzen duen Ibarra Uzturpe kadeteek gaur 10:00etan izango dute partida, Belabietan, Donostia-ko Maria Auxiliadoraren aurka.

IBARRA ▶ IKASTAROKAK

Haurdun dauden gurasoentzat masaje ikastaroa antolatu du Uzturpek

Jose Ramon Mauditek emango du Haur Eskolan, hilaren 30ean

I. TERRADILLOS

Uzturpek antolatuta, Haur Eskolan, hezitzaile eta gurasoentzat masaje ikastaroa antolatu dute. Gorputz terapeuta, psikologo eta prebentzio mailako aditu Jose Ramon Mauditek izango da arduraduna.

Halaber, ikastaro honen saio bat, hilaren 30ean 18:00etatik 19:00etara egingo dena, haurdun dauden gurasoentzat zuzendurikoa izango da.

Ikastaroan parte hartu nahi duenak Haur Eskolan eman beharko du izena.



Haurdun daudenentzat masaje ikastaroa egingo dute. UROLA KOSTAKO HITZA

IBARRA ▶

Herriaren parte-hartzea eskatu du plataformak

ERREDAKZIOA

Ibarrako Herri Plataformak «Udalak burutu nahi dituen urbanizazio aldaketa garrantzitsuak guztion iritzia kontuan izanda aurrera eramantuz» eskatzeko hainbat ekimen abiarazi ditu.

Plataformaren helburua arau subsidiarioen aldaketa prozesua geldiaraztea da; izan ere, «beste zenbait aldaketan artean, 850 etxebizitza berri aurririkusten ditu hazkunde horri egokituriko zerbitzu publikoen garapen egokirik gabe, eta landarezaileen ustiankuntza gehienek amaiera ekarriko du».

Hala, prozesua zerotik hastea eskatzen dute, herri guztien parte-hartzearekin. Era berean, herritar guztiak gonbidatzen ditu asteleheneko Kultur Etxean 19:30ean burutzen dituzten bileretara.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423

▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

▶ **Ibarraldea.** Osasun ebea:

672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzion klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ **DYA:** 672536

▶ **Gurutze Gorria:** 674888

▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970

▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzaran autob.: 948 221015

▶ **Taxia:** 670420

▶ **Taxia (Leitza):** 608 873016

Besterik.

▶ **Ertzaintza:** 538820

▶ **Tolosa-Udaltzaingoa:** 675858

▶ **Tolargi:** 650016

▶ **Iurramendi egotza:** 670325

▶ **Tolosa gasa:** 675320

LEITZA ▶ KULTURA



Mikel Illarregi Marroden Saria jaso zuen elkartearen eskutik. J. A.

Illarregiren 'Argazkiei begira'-k argia ikusi du

Egin berri dute aurkezpena eta sari-ematea, liburutegia bete entzuleren aurrean

J. ASTIBIA

Ostegun iluntzean egin zuten Mikel Illarregiren *Argazkiei begira* olerki liburuaren aurkezpena Leitzako liburutegian eta han bertan eman zioten lan honekin irabazi zuen Marroden Sariaren oroigarria.

Liburutegia bete jende bertan zela, Joseba Gotzon kantariak, Marroden Olerki Elkartearen izenean, sariaren oroigarria eman zion Illarregiri, aurten elkarteak berreskuratu duen ekimena eta leitzarri irabazi duena.

Hori baino lehen Huarte bertako liburutegian, Mario Angel Marroden Portugaleteko olerkari oparoa, «zortzi hizkuntzatan argitaratutako 400dik gora liburu idatzitako», azaldu zuenez, gogora ekarri zuen. Hain justu saria esleitu eta hilabetera zendu zen Bilbon, 73 urterekin.



Joseba Gotzon kantari. J. A.

Ekitaldian zehar, Illarregi bere poema mardoska errezi-tatu zituen, inspirazio izan zituen irudiez lagunduta; eta saioari Joseba Gotzon kantariak eman zion bukaera, Luis Alberto Rekejo klarinetistaren laguntzarekin, berak euskaratutako Marroden zenbait olerki musikatu kantatuz eta eskainiz.

LEITZA ▶ EUSKARA

«Euskaraz hitz egin eta ongi»: behin betiko konpromisoa Erletan

Bai Euskarari ziurtagiria duten eragileek abian jarri dute 'Herria euskaraz jantzi' ekimena hurrengo hilabeteetarako



Ikasleek konpromisoak sinatu zituzten. J. A.



Irakasle eta langileek ere beste hainbeste egin zuten. J. A.



«Euskaraz hitz egin eta txukun». JAIONE ASTIBIA



Euskararen aldeko festa egin zuten Erletan. J. ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

«Gure eguneroko bizitzan euskara ahalik eta modurik txukunenean erabiliko dugu; gure artean beti euskara eginen dugu». Horra hor atzo Erleta eskolako betetzeko hartu zituen konpromisoak.

Bai Euskarari Akordioarekin, *Herria euskaraz jantzi* ekimenari ekin diote ziurtagiridun erakunde, elkarte eta taldeek, «euskararekin hartuta dituzten konpromisoak ezagu-

tza emateko», ekitaldiak antolatuz. Atzokoan, Erleta eskolako eman zion hasiera, hartuta dituen konpromisoak «ikasle eta irakasle guztiekin» ez ezik, gurasoeekin ere partekatzeko helburuz, festa eginez.

Hiru urtetik hasi eta gorako 188 ikasleek eta euren irakasleek, zein bertako langileek, Konpromisoen Orrietan sinatu zuten, banan-banan, aitatutako konpromisoak ikasle batek zehatz eta ozen irakurri ondoren. Konpromiso orriak eskolan

zintzilikatuko dituzte, jakitera eman zutenek.

Aurrez, astean zehar geletan gaia lantzen aritu ziren: soinean beraiek egindako irudiak zeramatzaten eta egun horretarako *Behin betiko* kanta aukeratu zuten eta ikasi.

Festa giroan, Ingurutxo dantzatzu eta euskararen aldeko jarrera azalduz, festari, baina ez konpromisoei, amaiera eman zioten *Behin betiko* kantarekin: «*Hasi etxetik eta kale-ara, euskaraz Euskal Herrian!*».

LEITZA ▶

Euskarazko zinema saioak bihar hasiko dira

Umeentzat euskarazko filmen emanaldiekin bihar hasiko da Denok bat guraso elkarteak, iaz hasitako ekimenari jarraipena emanez: hilean behin eta igande arratsalde, 17:00etan hasita, umeentzat filmak emanen dituzte, pelikula edo marrazki bizidunak, baina guztiak euskaraz. Bihar proiektatuko dute lehena, *Sorgin bat etxean* marrazki bizidunetako filma.

LEITZA ▶

Joku eta jolas kooperatiboen aldeko saioak

Prebentzio zerbitzua eta Guraso Elkartearen eskutik, Olatz Aldabatreku pedagogoa «jostailu eta jolas kooperatiboak» hitzaldia emanen du Erletako jantokian, gurasoentzat, hurrengo asteartearen, 15:00etatik 16:30era. Ordu horretatik aurrera, 18:30ak arte, berriz, LHko 1. eta 2. mailako haurrentzat modu horretako jokoak antolatuko dituzte.

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Eztabaida. Besteak beste, gure web orrian, ehiza, etxebizitza, bertsolaritza, gaztebeak, leku batzuetan errretzea debekatzen duen legea... Horrelako eta bestelako gaien inguruan gure iritziak plazaratu ditzakegu eta gainerako irakurleekin eztabaidatu.

Mahala
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK

Jogurta

Mahala baserria - 20491 LEABURU
Tel.-Faxa: 943 673 499
Tel. Mug.: 689 805 633

ARAMBURU

Salgai (Tolosa). Pisua igogailuarekin Laramendi kalean 112m². Bista zoragarria.

Salgai (Tolosa). Pisua Belate ibilokian. Bista zoragarriak, sartzeko moduan.

Salgai (Tolosa). Lokal komertzialak Nagusia kalean eta Belate ibilokian.

Salgai (Ibarra). Pisua San Inazio auzoan, Guztin berria, 244.000 euro

Salgai (Tolosa). Pisua San Frantziskoa, 126m², Garajearekin.

Salgai (Tolosalde). Garajeak leku ezberdinetan: Ibarra, Batxilera Zaldibia kalean, Plaza zaharra...

Alokatzeko (Tolosa). Lokal komertziala Errementari kalean.

Alokatzeko (Tolosa). Garajea Pedro de Tolosa kalean, Araba Etorbidetan...

943 65 17 13 / 677 46 09 16



Harpidedunei banatua ▶ 2005eko azaroaren 26a, larunbata ▶ III. urtea

GAURKO
EGURALDIA



AGENDA ▶

AZOKAK

Tolosa. Liburu Azoka San Frantzisko pasealekuan. 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara.

DEIALDIAK

Altzo. Ardo-dastatze ikastaroan izen-ematea zabalik, hilaren 30a arte.
Anoeta. EHNA tramitatzeko aukera udaltxean. Gaur eta bihar, 11:00etatik 14:00etara.

Berastegi. 17:00etan, *Xalto show berria prestatzen* ikuskizuna, eskolako jolastokian; ondoren, txokolatada; 22:00etan, euskarazko filma ikusgai erabilpen anitzeko gelan. Kultur Astearen baitan.

Ibarra. Bide Eginez prozesuaren bigarren batzarra, Batasunak deituta. 10:00etatik 13:00etara, Subegi kultur elkartearen.

Ikaztegieta. Erromeria Irrintzi taldearekin kiroldegiko frontoian, 18:00etatik aurrera. Kultur Astearen barruan.

Leitza. Torrea elkarteak antolatuta, IV. Garagardo Festa, 21:30etik aurrera.

Leitza. Umeentzat eta gazteboentzat diskoteka ttikia. 18:00etatik aurrera, Amazabal pilotalekuan.

Tolosa. Bide Eginez prozesuaren bigarren batzarra, Batasunak deituta. 10:30ean, Kultur Etxean.

Villabona. Aizkardi Mendi Elkarrekin antolatutako 22. Mendizale Astearen baitan, bihar ibilaldia eta bazkaria egingo dute. Hitzordua, 08:30ean, Olaederran.


Villabona. Oinkari dantzari taldearen 30. urtemugan, taldean aritutako guztien bazkaria izango da abenduaren 18an Sarasola sagardotegian. Ondoren, erromeria. Izen-ematea, 660 13 93 80 telefonoan, edo Ikastolako ganbaran astearte eta ostegun arratsaldetan.

MUSIKA

Tolosa. The Solanos eta Zizateh. 22:30ean, Bonberenean.

TITIRIJAI 05

Tolosa. Venezuelako La Pareja taldearen *Panchito*



Bakartxoren eta bere lagunen istorioak

IKAZTEGIETA ▶ Txotxongilo emanaldi arrakastatsua antolatu berri dute Ikaztegieta Udalak eta Galtzaundik. Ia 50 lagunek gustura ikusi zuten Irrintzi taldearen *Bakartxoren zapatilak* saioa. GALTZAUNDI

Mandefua, 17:30ean, Kultur Etxean; Txinako Guandong puppet theatre taldearen *Lignango hagaboen magia*, 20:00etan, Beotibarren. **Ibarra.** La Pareja taldearen *Panchito Mandefua*. 11:30ean, Kultur Etxean.

ZINEMA

Leitza. Kim Ki-duk zuzendariaren *Hierro 3* filma. Bihar, 19:30ean, zinema aretoan.

Villabona. Montxo Armendariz zuzendariaren *Obaba* filma. Gaur, 19:30ean euskaraz, eta 22:30ean gazteleraz; bihar, 19:30ean gazteleraz, eta 22:30ean euskaraz; etzi, 19:30ean euskaraz, eta 22:30ean gazteleraz.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Ibarra. Ugarte, M. T. Euskal Herria, 46. 943 67 32 74.

Leitza. Gimeno, A. Elbarren, 52. 112.

IRRATIA

Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)

10:30-13:00. *Hitzak hegan*. Agenda, porra, elkarrizketak, Mundurako lehioa, kolaboratzaileak, disko eskainiak...

Goiko irratia (107 FM)

13:00. *Kornerra* magazina. Posta elektronikoa: kornerra@hotmail.com.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN

Ekaiz Otamendi. Gaur 2 urte. Zorionak aita, ama, anaia Aitzol eta familiaren partetik.



ZORIONAK

Bixente Aristi eta Maria Otamendi. Gaur ospatzen dituzte urteko etzeiak. Zorionak familiaren partetik.



URTE ASKOAN

Josu Aginaga Mendigain. 4 urte. Muxu handi bat etxeko guztien partetik.

HITZA,
zorian agurren
tartea

HITZAren egoitzetara:
Araba etorbidea, 5 beheko
TOLOSA
Udalteko bulegoa
LEITZA

Mesedez, argazkia bi
egun lehenago ekarri.
Mila esker!